

2004. urteko laugarren hiruhileko EPÄren datuei buruzko LABen balorazioa

INEk argitaraturiko datuen arabera, Hego Euskal Herrian hazi egin da landun kopurua eta gutxitu egin da langabezia.

Laugarren hiruhileko emaitzak nahiko positiboak izan dira orokorrean, baina desberdintasun esanguratsuak daude generoaren eta lurralde historiko desberdinen arabera.

2004. urteko laugarren hiruhilekoan 9.300 pertsona inguruan gehitu da Hego Euskal Herriko landun kopurua eta 1.600 langabetu gutxiago erregistratu dira; beraz, datu hauek aztertuz baieztatu dezakegu lan merkatuaren bilakaera nahiko positiboa izan dela urria, azaroa eta abenduan.

Hala ere, ikus daiteke onargarriak diren datu hauen atzean desberdintasun esanguratsuak daudela genero ikuspegia kontutan hartzen badugu, emakumezkoak izanik egoera okerrenean daudenak; alde batetik, gizonezko langabetu kopurua 5.700 pertsonatan gutxitu den bitartean, emakumezkoena 4.100ean hazi da, 1.600 langabetu gutxiagoko saldo positiboa utziz; eta bestalde, zenbatu diren 9.300 landun berrietatik 8.000 gizonezkoak dira eta 1.300 emakumeak.

4 lurralde historikoak banaturik aztertuz gero, gustu guztietarako datuak daude:

Nafarroan, 1.400 emakumek enplegu bat lortu zuten arren 700 gizonezkoak galdu egin zuten berea. Gizonezkoen langabezia 400 unitatetan hazi zen, baina emakumezkoen langabezia tasak gizonezkoenaren ia bikoitza izaten jarraitzen du (%6,52 eta %3,41 hurrenez hurren)

Arabian 400 lanpostu berri sortu ziren baina emakume landun kopurua 1.000 unitatetan gutxitu zen. 1.900 emakumezko langabetu gehiago erregistratu ziren, emakumezkoen langabezia tasa ia %13koa izanik.


Gipuzkoan 1.200 emakumek galdu zuten lanpostua eta langabezia 2.300 pertsonatan handitu zen (1.500 gizonezko eta 800 emakumezko).

Azkenik, Bizkaian, gainerantzeko lurralde historikoekin alderatuz datuak onak diren arren, generoaren aldetik desberdintasun handiak daude; aurreko hiruhilekoan baino 9.100 landun gehiago eta 1.800 langabetu gutxiago zenbatu ziren, baina 2.100 lanpostu soilik izan ziren emakumezkoentzat eta emakumezkoen langabezia 2.900 unitatetan hazi zen.

Baina gainera, sortzen ari den lan apurrak lan baldintza prekarioak dituela salatu nahi dugu, emakume eta gazteen kasuan batez ere, aldi baterakotasunaren hazkunde handiarekin.

Konkretuki, 2004. urtean zehar Hego Euskal Herrian sinatu ziren kontratuen %92,5 aldi baterakoa izan zen (%93,1 emakumeen artean eta %95,2 gazteen artean).

Kontutan izanik 2004. urtean zehar beraien lanpostuetan hil zen langile kopuru handia, interesgarria da aldi baterakotasunak lan istripuetan eragin zuzena duela gogoraztea, izan ere, aldi baterako kontratua duen biztanlego landunaren istripu tasa kontratu mugagabea duenaren bikoitza baino handiagoa baita (%117,2 eta %52,5 hurrenez hurren).



Iturria: Lan eta Gizarte Gaietarako Ministeritza eta INE.

Beraz, LABek ezinbestekotzat jotzen du aldi baterako kontratu desberdinekin patronalak egiten duen iruzurrarekin amaitzea prekaritate eta istripu maila izugarri hauekin amaitzeko.

Gai Ekonomikoetarako Idazkaritza